



Donostia Urdin
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzu

Kultura eta aisia
euskaraz
Donostian

bertsoa

- 'Bertsolaria bere bakardadean'
Xabier Sileira eta Unai Elizasu
Maiatzak 16, 20:00
Doka Kafe Antzokia
- Bertsolaritza. Ibai Esoain Arruti
Maiatzak 17, 18:00
Kontakizuna 4 bertsoak
Ander Arzelus plaza (Martutene)
Adina: 5-11

antzerkia

- 'Euskalduna naiz eta arraro nago'
Maiatzak 16, 20:30
Bet Boga Taberna. (Egia, Ametzagaña, 14)
Poltziko Antzerkia
- 'Zer duzu, Amy? Oh my god!'
Maiatzak 19, 19:30
Igeldoko Ibas Aurre Kultur Etxea
Poltziko Antzerkia

musika

- Kantu Jira
Maiatzak 18, 12:00
Elkar Megadendatik abiatuta
- Donostia Dantzan Erromeria
Maiatzak 18, 18:30
Konstituzio Plaza
Bagerak eta Musika Eskolak antolatuta
- Musika Parkean
Maiatzak 18, 14:00-18:00
Literatumi
Benartegi baserria (Kartzelaren atzealdean)
Antolatzaileak: Euskadiko Elkarte Filarmonikoak- Donostia Kultura

beste

- Museoen Nazioarteko Eguna
Maiatzak 18, 10:00-20:00
San Telmo Museoa
- Ateak Zabalik Jardunaldia
- Balezaleak
Maiatzak 16, 9:30 eta 17:45
Untzi Museoa
Bisitatu gidatua
Antolatzailea: AEK (Iriki Atia topalekua)

haur antzerkia

- 'Boli bili boli txotxongiloa'
Pantzar antzerki taldea
Maiatzak 18, 12:00
Liburutegi Nagusia (San Jeronimo)
Adina: 3-6 urte
Literatumi 13
- 'Papo Pupa', Hipo Eta Tomax
Maiatzak 18, 17:00
Kale antzerkia
Bidebietako frontoia
- 'Natura Maitatuz', Iriren Lagunak
Maiatzak 18, 17:30
Aiete Parkea
Adina: +4
- 'Itsasminez', Txotxongilo Taldea
Maiatzak 18, 18:00
Gatzeszena (Egia)

aisialdia

- EUREKAI Zientzia Museoa
Maiatzak 18, larunbata
Segway, 11:30 eta 15:00
Eboluzioa, 12:00
Elektzitate ikuskizuna, 13:15
Elementuen magia, 16:00
Planetarium txikia, 16:30
Printze txikia, 17:00
Zure gorpuz txiki handia, 18:00



Aiko taldeko lau kideak, dantzarako 20 kanta biltzen dituen *Bilgua* diskoaren aurkezpenan. JON HERNANZ / ARGAZKI PRESS

Gaurko den tradizioa

Tradizioan oinarri harturik, dantzarako sortutako 20 pieza berri batu ditu Aiko taldeak 'Bilgua' diskoan

Iñigo Astiz Bilbo

«Tradizioa garaikidea da. Orain gertatzen den zerbait da». Esaldi horrekin laburbildu du Sabin Bikendi musikariak Aiko taldearen filosofia. Musika tradizionala da haiek egiten dutena, baina propio sortutako kantekin. Berriak dira jotzen dituzten piezak, baina zaharra da haiek sortzeko baliatzen duten iturria. Konstante bat dute jarrera hori beren ibilbidean, eta oraingoa ez da salbuespena. Pirinio ingurutako txuntzun izeneko hariak eta perkusioa batzen dituen tresna oinarri hartuta, dantzarako 20 pieza sortu dituzte. Eta *Bilgua* izeneko bilduman batu dituzte guztiak.

Luzaiden (Nafarroa) aurkitutako dokumentu zahar bat da disko-

aren abiapuntua. Kantaz kanta deskribatzen da XIX. mendeko erromeria bat, eta egitura hori errespetatuz osatu dute diskoa Aiko taldeko kideek. Jauziak lehenik, elkarrekin dantzatzeko piezak ondoren (ingurutxoak, baltsak, kontradantzak...), eta berri ere jauziak amaitzeko. «Gaur egun dantzatzeko musika da, nostalgia gabe. Tradizioetik sortutako musika, zeren tradizioa berritu egin behar da, eta berritu egiten da etengabe».

Orain sei urte sortu zuten taldea hainbat musikari eta dantza irakasleek. Eta erromeria «gizarte-arte» izan da haien asmoa. Tradizioaz interpretazio zabala egiten dute horregatik. Likidoa, ia. «Gure dantzak dira gure sentitzen ditugunak», dio Bikandik. Propiotzat defenditu ditu horregatik rantzarak, txotisak edo balsak.

Piriniora begira jarri dira oraingoan. Horregatik baliatu dute inguru hartan tradizio handia duen txuntxuna. Txistua ere jotzen du txuntxuneroak, eta bes-

te bi tresnarekin ere izaten da maiz plazetan. Hirukote gisa osatu dituzte horregatik kanta guztiak: txuntxuna (Sabin Bikandi), danborra (Asier Garcia), eta biolina (Ainara Artetxe). Eta Pirinio ingurutatik hartu dute diskoaren titulua ere: *Bilgua*. Artzainen bilkurari esaten zaio *Bilgua*.

Ikuskizun ez den dantza

Dantzatzeko dantza omen da haiena. Eta badu bere garrantzia zehaztapenak. «Dantza ez da ikuskizun bat plazan. Ongi pasatzeko eta jendearekin harremanetan jartzeko modu bat baizilo», azaldu du Labordak. Diskoko kantekin grabatutako bideoak dira horren lekuko. Kanta guztiak jarri dituzte sarean. «Bideo horiek ez dute asmo pedagogikorik. Egin genuen erromerian izandako giroaren lekuko dira». Badira irudietan dantzari finak, baina badira hain fin ez direnak ere. Erratu eta barrez dabiltzanak. Eta hori dela plazako dantza. Eta hori dela erakutsi nahi izan duten giroa.

'Oversharing' (eta lau)



Bi ahotsetara
Xabier Erkizia

Bost euro emanez gero, diskoaren bertsio digitala deskargatzeko aukera izango duzu, eta diskoaren karpetan eskerrak eta dagokizun kreditazioa emango zaizkizu. 12 euroren truke, hori guztia eta binilozko diskoaren kopia fisikoa jasoko dituzu. 25 euro ematera, aitzinekoaz gain, artistak zure izena aipatuko du disko osatuko duten kanturen bateko hitzetan. Prezio berean, binilozko diskoaren jatorrizko abiadura aukeratu ahal izango duzu, edo baita kanturen baten iraupena ere. 30 euroko dohaintza eginez, orain arte aipatutako opari (erosketa?) guztiak batera, diskoak kantu bako instrumentazioa edo musika estiloa erabakitze modua izango duzu. Prezio berean, diskoak kantu batean koruak abestu ahal izango dituzu, eta, jakina, korista gisara azalduko zara kredituetan. Euro gutxi batzuk gehiago bidaliko bazenitu, zure grabaketaren bat gehi dezakezu diskoan, edo kanturen baten hitzen gaia ere inposu dezakezu. 50 euroko apertazioarekin, orain arteko zerrendari, diseinatu zure gorpuztaren atalen bat erakusteko aukera gehituko zaio. 75 eurorekin, zuzenean, zure hitzak jarri ahal izango duzu disko bati. 150 euro jarritz gero, zuri dedikatutako disko izango da, edo nahi izatera, diskoaren izenburua erabaki ahal izango duzu (inolako zentsurarik gabe). 700 euroren truke, diskoaren eta egitasmoaren egile eskubideak zuretzat gorde ahal izango dituzu. Azkenik, 1.300 euroko laguntza ematea erabakiko bazenu, orain arte aipatutako opari horiez guztiez gain, zurea ez den gainerako kopia guztiak errausteko eskubidea izango duzu. Aukera horrekin, gainerako mezenas edo emaille guztiak ere disko jasoko dute, baina binilozko ezpal eta kartoizko hauts bihurtuta. Zuk hala nahi izatera, diskoaren kopia oso bakarra zuretzat izango da.

Miguel Prado musikari galiziarrek egindako crowdfunding egitasmo baten opari zerrenda da. Grazia gutxiko txiste txar gisa har dezakezu, edo partekatzea eta finantzaketa sistema uestez berriek azpian gorde ditzaketen harreman irristakorren kritika zorrotz gisa irakurri.

BERRIAk

Euskadiko Filmategiaren 35. urteurrena ospatzeko



'Ama Lur'

(Nestor Basterretxea, Fernando Larruquert, 1968)

filma ikustera
gonbidatzen zaitu

Maiatzaren 23an, Antzoki Zaharrean, 20:00etan

SARTU

www.berria.info-n

aukeratu, eta jaso sarrera* DOAN!



* BERRIAlagun eta irakurle guztientzat

berria®